

Ixiar Miner (Hator Kooperatiba)

Koordinatzaileei elkarrizketa:

1. Datu orokor batzuk: enpresa zein den, noiztik dago martxan Euskara Plana, noiztik zara koordinatzaile, ...

Hator Koop.E. 12 langileko kooperatiba da. Enpresei aholkularitza fiskala, ekonomikoa, fiskala eta laborala ematen diegu eta baita ere Aseguru bitartekariak gara.

Euskara Plana 2006 urtean jarri zen martxan Hatorren eta hasieratik koordinatzailea naiz.

2. Euskararen nolako erabilera irudikatzen duzu zure lantegian 10 urte barru?

Ez naiz gauza horrelakorik aurreikusteko. Atzera begiratzen badut sekulako jauzia eman dugula nabarmena da, horregatik 10 urte barru euskararen erabilera areagotuko dela espero dut.

3. Planak dituen kanpo babesak (dirulaguntzak, agiriak...) nahikoak iruditzen al zaizkizu? Zer behar da?

Pentsatzen dut arlo askotan erakundeek asko dutela egiteko, hainbat gaietan ereduak sortzeko bitartekoak badituztela edo beharko lituzketela eta praktikan gauza asko ez daudela euskaraz eskuragarri. Adibidez Eusko Jaurlaritzako web orrietan sakontzen hasten bazara ikusiko duzu zenbait eredu soilik gazteleraz daudela. Beraz euskaraz hainbat lan egitea ikaragarri zailtzen da, berez aurretik ditugun zailtasunak, eta gainera doble lan egin beharra, gazteleraz egina daukazun hori, euskaraz zerorrek sortu behar duzulako.

4. Eta barruko babesak? Zer falta da?

Enpresa guztiak dira ezberdinak, baina orokorrean esango nuke barruan babesa izateko euskaraz lan egiteko beharra nabaritu egin behar dela, eta horretarako gaur egun gizartean dugun presioa baino handiagoa behar dela. Enpresa barruan beharrezko bitartekoak jartzeko behar bat bezala ikusi behar da euskaraz lan egitea, norbaitek eskatzen diolako, bezeroak exijitzen duelako, gehiago saltzen delako..... horrelakoak gertatzen hasten direnean beharrezko bitartekoak jarriko dira enpresetan.

5. Zergatik koordinatzaile? Zerk bultzatu zintuen Euskara Planeko lanetan konprometitzera?

Euskara Planean sartzeko ideia Udaleko euskara zerbitzutik iritsi zitzaigun eta lehendik ere harreman batzuk banituenez koordinatzaile lanak hartu nituen "tokatzen" zelako. Aurretik herriko euskara elkartean izandako esperientziak lagundu zuen honetan.

6. Zer nolako profila izan beharko luke koordinatzaileak bere lana egoki betetzeko? Profila esaten dugunean, formazioaz ari gara, pertsonaren dohainez ari gara, trebetasunez eta gaitasunez ari gara.

Batez ere gogoia behar duela iruditzen zait. Euskararen ezagutza sendoa bat ere beharrezkoa dela iruditzen zait, hainbat gai eskuartean izango baititu eta baita ere behar du gainontzeko lankideak motibatuzko abildadea.

7. Zer eman dizu koordinatzaile izateak? Zer ekarpen egin dizu postuak? Eta zerbait kendu al dizu?

Koordinatzaile izateak ez dit bereziki ezer eman ez kendu. Dударik gabe lan bat gehiago da, baina ez dut karga bat bezala ikusi.

Euskara planak aldiz bai eman dit pertsonalki aukera euskaraz nire arloko gaiak jorratzeko eta ezagutzan sakontzeko, baina ez bereziki koordinatzaile izateagatik, beste kide bat gehiago bezala.

8. Zer zailtasun dituzu zure koordinatzaile lana aurrera eramateko? Zer falta zaizu?

Bereziki denbora falta zait, beti gertatzen dena, askotan lanean hain lanpetuta zaude, euskara planaren ardurak azkenerako uzten didala, eta hori ere pena da, baina hori da errealitatea.

9. Koordinatzaile kargua hartu zenuenean, espero al zenuen egin beharreko lana horrela izango zela? Zerk harritu zaitu gehien?

Koordinatzaile izateari ez diot halako garrantzirik eman, ez nuen ezta ere aurreiritzirik, beraz ez daukat ezer esateko.

10. Beste zerbait esan nahiko bazenu